

KOSTU EGITURA

Gure proiektua aurrera ateratzeak hainbat gastu dakartza, eta gure enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar du. Negozioaren kostuak kostu finkoetan eta kostu aldakorretan sailkatu ditugu.

- **Kostu finkoak:**

Kostu finkoak ekoizpenarekiko independenteak dira, hau da, euren balioa ez da aldatzen, ekoizpena aldatu arren. Kostu finkoen barruan, webgunearen hosting-a, langileen soldata, alokairua, argindarra, ura, telefonoa, gasa.



- **Kostu aldakorrak:**

Kostu aldakorrak ekoizpenarekiko proportzionalak dira, hau da, ekoizpena hazi ahala, kostu aldakorrak ere haziko dira. Kostu aldagarrien barruan lehengaiak, ura (consumo), argindarra (consumo), gasa (consumo) eta hornidurak ditugu. Kostu aldakorren barruan, enpresak ordaindu beharreko zergak ere finka ditzakegu; izan ere, martxan jartzeko, irekitzeko lizentziak... ordaindu beharko ditugu.



Gainera hasierako inbertsioa 10.000€-koa izango da. Hasierako bost partaideen artean, bakoitzak 2000€ ipiniz eskuratuko dugu diru hori. Inbertsio horren zati bat, beharrezko baliabide fisikoak lortzeko erabiliko dugu (produktuak salgai jartzeko lokal bat, webgunea aurrera eramateko ordenagailu bat eta produktuak egiteko materiala), eta beste zati bat berriz publizitatean erabiliko dugu. Diru gehiago behar izanez gero, mailegu bat eskatuko zaio finantza-erakunderen bati gastu horiek ordaintzeko.

Kostuak hilabeteko:

KOSTU FINKOAK	
Argindarra	100€
Webgunearen hosting-a	300€
Alokairua	1500€
Telefonoa	40€
Soldata	1600€*5
GUZTIRA	9940€

KOSTU ALDAKORRAK	
Ura	200€
Gasa	200€
Hornidurak	300€/hilabeteko
GUZTIRA	700€